

ERANSKINA

HAUTAKETA-PROZESUAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

1. Deialdiaren xedea:

Pertsona bat bitarteko funtzionario gisa izendatzeko hautaketa-proben deialdia egitea da Oinarri hauen helburua. Hark jarraian adierazten diren zerbitzuak eskaini beharko ditu, landa-munduarekin eta ingurune naturalarekin lotuta.

Zerbitzu horrek honako eginkizun hauek hartzen ditu barne, Anoetako landa-munduan eta ingurune naturalean:

- a) Herri-bide, mendi-bide eta baserri-bideen inbentarioa.
- b) Herri-ondare kulturalen mantenua eta egoeraren jarraipena.
- c) Bertako Bertatik kanpainaren jarraipena egitea eta talde sustatzailea dinamizatzea.
- d) Herritarren ingurumenarekiko sentsibilizazioan eragitea.
- e) Urtean bi irteera dinamizatzea: herriko baserriak, ekoizleak eta herriko mendiak ezagutzeko.
- f) Lorezaintza-lanak ikuskatzea eta herritarren sentsibilizazioa sustatzea.
- g) Herri-lurren eta herri-baratzeen egoeraren jarraipena egitea.
- h) Agenda 21 programari dagokion partaidetzaren jarraipena egitea.
- i) Landa-eremuko jakintzak berreskuratzea eta horiek mantentzeko lanen jarraipena egitea.
- j) Ekintza kulturaletan bertako produktuak txertatzea.
- k) Haur eta gaztetxoan aisialdi-eskaintzetan ingurumen-hezkuntzaren oinarriak lantzea.
- l) Landa-eremuen bizi direnen bizi-egoera aztertzea.

Zerbitzuarekin batera, egindako lanei buruzko txostenak igorri eta jarduketa-proposamenak egin beharko dira.

Bere ordainsaria Udaltzako 10. mailari dagokiona izango da.

2. Parte hartzeko baldintzak:

Hautaketa-probetan parte hartu ahal izateko, eskariak aurkezteko epea amaitzean izangaiek honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

a) 16 urte beteta izatea eta nahitaez erretiratzeko adina ez gainditzea.

b) Europar Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Hitzarmenen bidez, langileen zirkulazio askea duen estaturen batekoa izatea. Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalitatea dutenen ezkontideek ere hartu ahal izango dute parte, betiere zuzenbidez banatuta ez badaude, baita nazionalitate hori dutenen ondorengoek eta ezkontideen ondorengoek ere, ezkontideak zuzenbidez banatuta ez badaude, 21 urte baino gutxiago badituzte edo, urte gehiago izanda ere, horien kontura bizi badira.

c) Nekazaritza-arloko erdi-mailako edo goi-mailako Lanbide Heziketako ikasketak izatea edo, eskabideak aurkezteko epea amaitzean, hura lortzeko eskubideak ordainduta izatea. Atzerriko tituluen kasuan, haren homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria izan beharko du.

d) Izendapena egin aurretik, eginkizunak betetzeko behar den gaitasun funtzionala izatea, minusbaliatuak gizarteratzeari buruzko 1982ko apirilaren 7ko 13/1982 Legeari jarraikiz.

e) Diziplinazko espediente bidez Herri Administrazioen zerbitzuetatik baztertuta ez egotea edo funtzio publikoak betetzeko ezgaituta ez egotea. Atzerritarrek egiaztatu egin beharko dute beren estatuan funtzio publikoetara sarbidea izatea galarazten dien diziplinazko zigorrak edo zigor penalik ez dutela.

f) Euskara: HE3 o antzeko ziurtagiria izatea.

Bitarteko funtzionarioen izendapena egitean, izendatuek baldintza guztiak bete beharko dituzte.

3. Eskaera-orriak:

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabide arautuak Udal honetako Alkatetzari bideratuko zaizkio, eta honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Parte hartu nahi duten pertsonak 2.a oinarrian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute eskaera-orriak aurkezteko epea amaitzen den unean.

b) Eskaera-orriak behar bezala beteta aurkeztu beharko dira Udaleko Erregistro Orokorrean (Herriko Plaza, z/g, 20270, Anoeta), deialdiaren iragarkia argitaratzen denetik 10 laneguneko epean.

c) Indarrean den legerian aurreikusitako lekuetan, hau da:

— Euskal Autonomia Erkidegoko edo beste autonomia-erkidego batzuetako erregistroetan, Estatuko Administrazioaren erregistroetan, Foru Aldundi eta Probintzietako Diputazioen erregistroetan, kabildeen eta uharteko kontseiluen erregistroetan, eta, halaber, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 121. artikuluan aipatzen dituen udalerrietako udaletxeetan.

— Posta-bulegoetan aurkeztutako eskaera-orriak aurkezpen-epearen barruan eta gutun-azal irekian aurkeztu beharko dira, ziurtatu aurretik, Postako funtzionarioak data eta zigilua jar diezaien. Kasu horretan bakarrik ulertuko da eskaera-orriak posta-bulegoan utzi ziren egunean izan zutela sarrera Udal Erregistro Orokorrean. Eskaera-orria da zigilua izan behar duena.

Era berean, eskaera-orriak Anoetako Udalaren egoitza elektronikoko erregistro elektronikoaren bitartez aurkeztu ahal izango dira, <https://www.anoeta.eus> helbidean, indarrean den legerian adierazitakoaren arabera.

4. Aurkeztu beharreko agiriak:

4.1. Eskaera-orriarekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

— Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia edo, atzerritarren kasuan, agiri baliokidearen fotokopia (konpultsatu gabe).

— Gidatzeko Baimenaren Fotokopia (konpultsatu gabe).

— 7. oinarrian aipatzen diren ziurtagiri edo tituluren baten fotokopia konpultsatua:

- L.H. (tituluak) (a)

- Lan Eskarmentua (b)

- Hizkuntza – eskakizunaren ziurtagiriak:

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako ziurtagiriak , hizkuntza – eskakizuna egiaztatu izana frogatzen dutena eta haren baliokide diren ziurtagiriak.

4.2. Hautaketa-prozesua amaitzean aurkeztu beharreko agiriak.

2. oinarrian adierazten diren parte hartu ahal izateko eskakizunen egiaztagiriak 10.a oinarrian aurreikusitakoaren arabera aurkeztuko dira, aurretiazko errekerimendu bidez.

Dokumentuak konpultsatzea:

Deialdian parte hartzeko eskakizunak egiaztatzeko jatorrizko agiriak edo kopia konpultsatuak aurkeztuko dira, eskaera-orriari erantsi behar zaion Nortasun Agiri Nazionalaren edo, atzerritarren kasuan, agiri baliokidearen kopia izan ezik.

Kopiak Anoetako Udalaren Erregistro Orokorrean edo fede-emaila publiko eskudunaren bidez konpultsa daitezke. Horretarako, jatorrizko dokumentuak eta kopiak aurkeztu behar dira.

5. Hautagaiak onartzea:

Eskaera-orriak aurkezteko epea amaitzean, Alkatezak onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrendak onartuko ditu. Horiek egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuko ditu, <https://www.anoeta.eus> helbidean.

Zerrenda horretan baztertutzat eman diren pertsonak 5 egun balioduneko epea izango dute, egoitza elektronikoaren iragarki-taulan (<https://www.anoeta.eus> helbidean) argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, baztertu izana eragin duten akatsak edo omisioak zuzentzeko nahiz zerrenden aurkako erreklamazioak egiteko.

Erreklamaziorik egiten ez bada, behin-behineko zerrendak behin betikotzat hartuko dira zuzenean. Erreklamazioak aurkezten badira, beste ebazpen baten bidez onetsi edo ezetsiko dira; ebazpen horren bitartez, behin betiko zerrendak onartu eta aurrekoen modu berean argitaratuko dira.

Behin-behineko zerrendetatik kanpo geratu diren eta erreklamazioa epearen barruan aurkeztu duten hautagaiek hautaketa-probak egiteko aukera izango dute kautelazko izaeraz, egindako erreklamazioa data horretarako ebatzen ez bada.

Era berean, behin betiko zerrendetatik kanpo geratu diren eta kanpo geratu izanaren kontrako ebazpena aurkeztu duten hautagaiek kautelazko izaeraz egin ahal izango dituzte hautaketa-probak, erreklamazioa data horretarako ebazten ez bada.

6. Kalifikazio Epaimahaia:

Kalifikazio Epaimahaia jarraian adierazten diren pertsonen osatuko dute:

Lehendakaria:

— Udal honetako idazkari-kontu-hartzaile titularra edo hark izendatutako ordezkoa.

Mahaikideak:

— Anoetako Udalean lan egiten duten karrerako bi funtzionario edo horiek izendatutako ordezkoak.

Idazkaria:

—Udal honen administrari gisa jardungo du titular gisa, edo hark izendatutako ordezkoa.

Epaimahaia Alkatetzak berak izendatuko du eta egoitza elektronikoaren iragarki-taulan (<https://www.anoeta.eus> helbidean) argitaratuko da.

Egokitzat jotzen dituen probetan, Epaimahaiak kasuan kasuko gaian adituak diren aholkularien lankidetzak eskatu ahal izango du, egokitzat jotzen diren probetan edo ariketetan izangaiak baloratzeko orduan, Epaimahaiko kideekin lankidetzan aritu daitezten. Aditu horiek hitza bai, baina ez dute botoa emateko eskubiderik izango, eta beren espezialitate teknikoko gaietan aholkuak ematera mugatuko dira.

<p>Indarrean den legeriak aipatzen dituen egoeraren bat gertatzen denean, Epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote eta Alkatzari jakinarazi beharko diote. Epaimahaiak indarrean den legeriak zehazten dituen arauetara egokituko du bere jarduna. Edonola ere, idazkariak deituta bilduko da, lehendakariaren aginduz, betiere hautaketa-probak hasi baino behar beste denbora lehenago; ondo eratuta geratzeko, lehendakariak eta idazkariak (edo horien ordezkoez) eta, gutxienez, kideen erdiek egon beharko dute bertan.</p>
<p>Epaimahaiak bildutakoen botoen gehiengo bidez hartuko ditu erabakiak. Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dituzte, idazkariak izan ezik, hark ez baitu botorik izango. Berdinketak lehendakariaren boto bidez erabakiko dira.</p>
<p>Idazkaria edo haren ordezkoa bileran ez badago, gaixorik badago, kargua hutsik badago edo bestelako kausa legalen batek behartzen badu, Epaimahaiak gehiengoz erabakitzen duen mahaikideak ordeztuko du.</p>
<p>Ordenamendu juridikoa aintzat hartuta, oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu. Era berean, deialdi bakoitza ondo garatzeko behar diren erabakiak hartuko ditu eta oinarrietan aurreikusten ez diren kasuetan jarraitu beharreko irizpideak ezarriko ditu.</p>
<p>Hautaketa-prozesuaren edozein unetan, deialdian parte hartzeko eskakizunen bat betetzen ez duen hautagairen bat dagoela jakiten badu, interesatuari entzun eta gero, hura baztertzeko proposatuko dio organo eskudunari, eskaeran hark jarritako okerrak edo faltsukeriak adieraziz.</p>
<p>Epaimahaiak behar diren neurriak hartuko ditu ariketa idatzien edukiaren konfidentziasuna bermatzeko eta horiek parte hartu duten pertsonak identifikatu gabe zuzentzeko.</p>
<p>Komunikazioetarako eta era guztietako gorabeheretarako, Kalifikazio Epaimahaiak honako helbide hau izango du:</p>
<p>Anoetako Udala. Udaletxea. Herriko Plaza, z/g. 20270. Anoeta.</p>

7. Probak:

Ariketarako dei bakarra egingo zaie hautagaiei, eta bertaratzen ez direnak hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira. Horiek identifikatu ahal izateko, hautagaiek Nortasunaren Agiri Nazionala edo, atzerritarren kasuan, dokumentu baliokidea eramango dute.

Epaimahaiak ariketak egiteko denbora eta bitartekoak egokituko dizkie desgaitasuna duten hautagaiei, egokitzapen hori beharrezkoa bada eta eskaera-orrian behar horia aipatu bada, hala, gainerako hautagaiekiko aukera-berdintasuna izan dezaten, betiere probaren edukia indargabetzen ez bada edo eskatutako gaitasun-maila jaisten edo eragozten ez bada.

Lehenengo proba egiteko data, tokia eta ordua 5.a oinarrian xedatzen den onartutakoan eta baztertutakoan behin-behineko zerrenda onartzeko ematen den ebazpenean xedatuko da.

Ariketa Praktikoa: Elkarrizketa.

Elkarrizketa bat egingo da Epaimahaiko kideekin, eta garatu beharreko eginkizunen ideiei eta proposamenei buruz hitz egingo dute, baita aurkeztutako curriculum vitaearen inguruan ere (ikasketak, esperientzia profesionala eta abar).

Ariketa hau 15 punturekin baloratuko da gehienez ere.

Lehiaketa Fasea.

Epaimahaiak jarraian adierazten diren merituak baloratuko ditu, betiere interesdunak eskaera-orrian hala alegatu baditu eta kasuan kasuko egiaztagiriak aurkeztu baditu:

a) Tituluak.

Lanbide Heziketako goi-mailako titulu ofiziala edo homologatua izatea edo hura lortzeko eskubideak ordainduta izatea, honako familia profesional hauetan (12,5 puntu gehienez).

- Basoen eta Natura Ingurunearen kudeaketa (goi-mailako gradua): 10 puntu.
- Paisajismoa eta Landa Ingurunea (goi-mailako gradua): 10 puntu.
- Natura-ingurunearen aprobetxamendua eta kontserbazioa (erdi-mailako gradua): 5 puntu.
- Beste ikasketa batzuk: ingurumen-gidaria, landa-eremuko elikadurari buruzkoa

<p>eta abar: 2,5 puntu.</p>
<p>b) Esperientzia profesionala jorratuko diren sektoreetan (landa-eremua eta natura-ingurunea): 10 puntu gehienez. Gaindituztat emateko, 18,75 puntu lortu beharko dira gutxienez.</p>
<p>9. Gainditu dutenen zerrenda:</p>
<p>Epaimahaiak gainditu dutenen eta gainditu ez dutenen zerrenda prestatuko du, horiek lortu dituzten puntuen arabera.</p>
<p>Berdinketa gertatuz gero, Kalifikazio Epaimahaiak erabakiko du zein irizpide erabili (emakumeari lehentasuna ematea, adibidez).</p>
<p>Puntu gehien lortzen dituen pertsona proposatuko zaio Alkatetzari, hark hura izendatu dezan.</p>
<p>Hautaketa-prozesua amaitu ondoren, Kalifikazio Epaimahaiak prozesua gainditu duten hautagaien behin betiko zerrenda argitaratuko du egoitza elektronikoaren iragarki-taulan (https://www.anoeta.eus helbidean), lortutako puntuazioaren arabera.</p>
<p>10. Agiriak aurkeztea:</p>

Lanean hasi aurretik, gainditutakoen zerrendan agertzen diren pertsonen jarraian aipatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko dute Udal honetan:

* Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia edo agiri baliokidea, atzerritarren kasuan.

* Deialdian parte hartzeko eskatu den titulu akademikoaren fotokopia konpultsatua.
*Euskara.

Hizkuntza-eskakizuna honako hauen bitartez egiaztatu ahal izango da:

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ziurtagiria, hizkuntza-eskakizuna egiaztatu izanarena.

Beste ziurtagiri baliokide batzuk, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua egokitzeko indarrean den araudiak dioenaren arabera.

Era berean, mediku-azterketa bat egingo da.

Horretarako eman den epean, hautagaiak dokumentazioa aurkezten ez badu edo eskatzen diren betebeharrak egiaztatzen ez baditu, hautaketa baliorik gabe geratuko da eta horretara zuzendutako egintza guztiak baliogabetuko dira. Horrela, onartutako hurrengo hautagaia izendatuko da.

11. Zerbitzuak ematea:

Zerbitzuak lanaldi osoan eskainiko dira, aldi baterako programa hau gauzatzeko behar den denbora osoan zehar, baina gehienez ere hiru urteko epean.

12. Deialdiak eta jakinarazpenak:

Hautaketa-prozesuko proben deialdia eta, halaber, emaitza eta kalifikazio nahiz Kalifikazio Epaimahaiaren jakinarazpen guztiak egoitza elektronikoaren iragarkitaulan (<https://www.anoeta.eus> helbidean) argitaratuko dira.

Interesatuak helbide honetan eskura dezakete deialdiari buruzko informazio orokorra:

Anoetako Udala. Udaletxea. Herriko Plaza , z/g. 20270. Anoeta.
Telefonoa: 943 651 200

13. Gorabeherak:

Epaimahaiak sor litezkeen zalantzak argitzeko eta hautaketa-prozesua behar bezala gauzatzeko beharrezko erabakiak hartzeko ahalmena izango du.

Deialdia, oinarriak eta deialditik nahiz Epaimahaiaren jokabidetik erator litezkeen administrazio-egintza guztiak indarrean den legerian ezarritako moduan eta epeetan inpugnatu ahal izango dira.

14.- Datu pertsonalak babestea.

Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko ditu Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruz abenduaren 5eko 3/2108 Lege Organikoa eta aplikagarri diren bestelako arauak.

Datu pertsonalak hautapen prozesuan parte hartzeko eskaerak kudeatzeko ez besterako erabiliko dira , interesdunak emandako baimenean eta datu tratamenduaren arduradunari aitortutako ahal publikoetan oinarrituta.

Anoetan , 2019ko urtarrilaren 25ean.

IDAZKARIA.